

FITXA: 208 – ARABA - Energia jasangarritasunerako ekintzak bultzatzeko laguntza lerroaren 2026rako deialdia

Nori zuzendua: 25.000 biztanle baino gutxiago dituzten Arabako Lurralde Historikoko udalerriak eta kontzejuak.

Deialdia: ALHAO - Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala **Deialdiaren data:** 2026/03/16

Sarbide-esteka:

<https://egoitza.araba.eus/eu/-/energia-jasangarritasunerako-laguntza-eskatzea>

Erreferentziazko araudia: 112/2026 Erabakia, martxoaren 3koa - https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2026/032/2026_032_00686_E.pdf

Eragin eremuak: Hirigintza eta Ingurumena; Energia

Zenbatekoa: 350.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/03/17

Aurkezteko azken eguna: 2026/04/17

Aurrerakina: Ez da zehaztu.

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: Jarduera-mota bakoitzerako aldakorra. **Gutxieneko zenbatekoa:** Ez da zehaztu.

Laburpena

Jasangarritasun energetikorako ekintzak sustatzeko laguntza-lerroa.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

1. mota: eraikin eta ekipamendu publikoen, ibilgailuen eta argiteria publikoko instalazioen inbentarioak egitea, kontsumoen kontrola, energia auditoretzak, energia efizientziaren ziurtagiriak, energia jarduketan planak, hiri mugikortasuneko planak edo klima aldaketara egokitzeko eta hura arintzeko beste plan batzuk egitea. Hori guztia toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzu publikoei dagokienez.
2. mota: monitorizazio ekipoak, ordu programazioa, urruneko kontrola eta antzeko baliabideak ezartzea, toki erakunde onuradunek kontsumitzen duten energia benetako eskarira egokitzeko.

3. 3. mota: eguzki bidezko argiteria publikoa hornitzea.
4. 4. mota: lanparak ordezte, argiteria publikoan eta toki erakundeen eraikinetan energia eraginkortasuna handitzeko.
5. 5. mota: baliabide berriztagarrien aprobetxamendurako instalazioak eta ekipamendua (termikoa, fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia, minihidraulikoa, aerotermia edo etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk), bai sorkuntza instalazioak, bai haiekin lotutako biltegiatze instalazioak; horiek guztiak toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzuen eskariari erantzuteko.
6. 6. mota: bideragarritasun azterlanak eta instalazioen proiektu teknikoak idaztea, eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia, minihidraulikoa, aerotermia eta etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk aprobetxatzeko, baita karga elektrikoko azpiegiturak ere; horiek guztiak toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzuetan erabiltzeko.
7. 7. mota: ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzea, bizikletetarakoak barne. Kargatzeko puntuak erabilera publikora bideratuta egongo dira edo, bestela, erakunde onuradunaren ibilgailuen zerbitzura.
8. 8. mota: ibilgailu elektrikoak eskuratzea (bizikleta elektrikoak barne) erakunde publikoen titulartasun eta erabilerarako.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Ez da zehaztu

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagundu beharreko ekintza hasi gabe egon beharko da 2026ko urtarrilaren 1ean. Ekintza gauzatzeko eta ordainketa egiteko eskatzen diren agiriak aurkezteko gehieneko epea 2026ko abenduaren 30a da.